

Eskolako Agenda 21 - Azpeitia

2006-2007 ikasturteko memoria

“Kontsumoa murriztuz hondakin solidoak gutxitu”

- Azpeitiko ikastola Karmelo Etxegarai
 - Azpeitiko ikastola Ikasberri
 - Iraurgi ikastetxea
 - Urola ikastola



SARRERA

ESKOLAKO AGENDA 21 ikastetxeak garapen iraunkorrerantz bideratzeko lan-tresna baliagarria da. Horretarako, derrigorrez hezkuntza-komunitateko eragile guztiak prozesu horretan sartu eta udal administrazioekin elkarlana egin behar dute. Euskal Autonomia Erkidegoko instituzioek, konpromiso sendoa hartua dute eta mantentzen dute garapen iraunkorrarekin lotutako programen zabalkundea eta aplikazioa bultzatzeko, bai material ezberdinen prestaketan, bai dirulaguntzen banaketaren bidez eta baita aholkularitza eta jarraipenean ere. Udal mailan hasitako bidea asko aberastu da ikastetxeetan garatzen ari den programa honekin.

Ildo honetatik, 2003-2004 ikasturtean, Azpeitiko zenbait ikastetxek martxan jarri zuten egitasmo hau energiaren gaia lantzeko. Hurrengo ikasturtean, 2004-2005ean landu zen gaia hondakinena izan zen, 2005-2006an *"Hondakinak gutxitu kontsumoa murriztuz"* izan zen autatutako gaia, eta aurtengo ikasturtean jorratu dena ***"Kontsumoa murriztuz hondakin solidoak gutxitu"*** izan da. Esan beharra dago, orain arte proiektuan barne hiru ikastetxe bazeuden ere, aurtengo ikasturtean Ikasberri ikastola ere sartu dela; beraz, lau ikastetxek hartu dute parte: Karmelo Etxegarai Ikastola, Ikasberri ikastola, Iraurgi ikastetxea eta Urola Ikastola, eta hauen helburua hausnarketa bat egitea izan da, beti ere, garapen iraunkorraren ikuspegitik.

Ohizkoa denez prozesua garatzeko erabilitako metodologiak Eskolako Agenda 21ak dituen oinarrizko hiru osagaiak kontuan izan ditu: Ikastetxeko eta inguruko ingurumenaren kudeaketa iraunkorra, Curriculumaren berrikuntza eta Komunitatearen parte-hartzea. Azken atal hau, komunitatearen parte-hartzearena, INGURUGIRO ETXEA MUSEOko hezitzaileek zuzendu dute, partaide guztien koordinazio lanarekin.

METODOLOGIA ETA HELBURU OROKORRAK

Ingurumen Hezkuntza arloko helburuak Agenda 21aren helburu orokorrekin lotu nahi izan dira kontsumo iraunkorraren ardatz nagusiak landu ahal izateko. Iraunkortasuna lortzea denon lana denez, guztiok gure etxeetan gure bizimodua eta ohiturak pixka bat aldatzen badugu, baliabide naturalak zainduko ditugu eta hondakin gutxiago sortuko. Guzti hau garatzeko, ikasle eta irakasleek lan asko egin dute, bai ikastetxean, bai ikastetxetik kanpo, eta hainbat irteera ere egin dituzte.

2005/2006 Ikasturtean Eskolako Agenda 21 proiektuan parte hartu duten ikastetxeak eta zikloak honako hauek izan dira:

- Karmelo Etxegarai ikastolako LH
- Ikasberri ikastolako LH
- Iraurgi ikastetxeko LH
- Urola Ikastolako DBH

ZIKLOA	LH1		LH2		LH3		DBH	DBH	DBH	DBH
IKASTETXEA	1.	2.	3.	4.	5.	6.	1	2	3	4
IKASBERRI IKASTOLA	26 (1)	21(1)	23 (1)	23 (1)	21(1)	12 (1)				
IRAURGI IKASTETXEA	56 (3)	55 (3)	55 (3)	70 (3)	57 (3)	68 (3)	78 (3)	67 (3)	74 (3)	77 (4)
KARMELO ETXEGARAI I.	63 (3)	63 (3)	62 (3)	54 (3)	56 (3)	60 (3)				
UROLA IKASTOLA							57 (3)	66 (3)	64 (3)	59 (5)
TOTALA	145 (7)	139 (7)	140 (7)	147 (7)	134 (7)	140 (7)	135 (6)	133 (6)	138 (6)	136 (9)
	284 (14) Gela		287 (14) Gela		274 (14) Gela		135 (6)	133 (6)	138 (6)	136 (9)

IKASLE GUZTIEN KOPURUA : **1.387**

METODOLOGIA

Eskolako Agenda 21ak, ingurumen hurbileko arazoak ezagutu eta ulertzea ahalbidetuko duen hezkuntza-praktika bat izan nahi du.

Proiektu honetan sartzeak, metologia mailan, Curriculumaren berrikuntza suposatzen du: ingurumen hezkuntza lantzea, parte-hartzeko metodoak bultzatzea, ikuspegi globaleko proiektuak aurrera eramatea, eta baita, ingurumenaren erabilera didaktikoa egitea ere (ibilaldiak, inkestak, elkarrizketa,...)

Metologia, ikasleen ezagutzetatik abiatzen da, informazio iturri desberdinak erabiltzen ditu, ikasleen arteko elkar komunikazioa, lana eta talde lan kooperatiboa sustatzen du, eztabaida ahalbideratzen du eta ikasleen arteko harremanak gehitu eta indartu ere egiten ditu.

IHARDUERAK ETA EKINTZAK

Aurten Eskolako Agenda 21 proiektuaren barnean ziklo bakoitzak burututako ekintzak eta irteerak honako hauek dira:

LHko 1. zikloa

Ekintza:

Zaborrak eta kontsumoa:

Ekintza hau Ingurugiro Etxean burutu da. Bertan ikusi dugu eguneroko bizitzan (eskolan, etxean, auzoa) zaborrak denok sortzen ditugula. Baina denon eskura baditugu neurriak ingurunea gutxiago zikindu eta kaltetzeko. Neurri horiek zaborrak gutxitzea, berrerabiltzea eta birziklatzea dira, hain zuzen ere. Edukinontzi ezberdinak bereizteko eta bakoitzean zer sartu behar den jakiteko, ikasleekin zabor-sailkapen ariketa praktiko bat egin dugu.

Irteera:

Lapatx zabortegira bisitaldia:

Lapatx zabortegian zaborrak nola kudeatzen diren jakiteko aukera izan dute ikasleek. Ordu eta erdi inguruko saioan, zaborrei buruzko bideo bat ikusi dute, zabortegiari buruzko maketa bat aztertu eta oinezko ibilbidea egin. Ondoren, gelan ikasle bakoitzak bisitan ikusitakoari buruzko galdetegi bat bete du. Jasotako erantzunak talde handian aztertu dira.

LHko 2. zikloa**Ekintza:****Kontsumo iraunkorraren gela:**

Kontsumo gelaren erakusketak erosketa simulazio bat proposatu du ariketa moduan. Ariketa honetan iraunkortasun irizpideak hartu dira kontuan.

Lan-dinamika honako hau izan da: aipatutako hezkuntza-maila bakoitzerako eguneroko egoera batzuk planteatu dira. Egoera hauei aurre egiteko beharrezkoa izan da erosketa batzuk egitea. Taldea talde txikitan banatu da eta bakoitzak orri batean idatzi ditu erosi beharreko produktuak. Ondoren, produktuak bilatu eta aukeratu egin ditu. Produktu guztiak lortu eta gero, beraien ingurumen-kostua kalkulatu dute. Bukatzeko, talde txikiek talde handian azaldu dituzte beren emaitzak eta hezitzailearen laguntzarekin produktu bakoitza aztertu eta aukera iraunkorrena ezagutu dute.

Irteera:**Lapatx zabortegira bisitaldia:**

Lapatx zabortegian zaborrak nola kudeatzen diren jakiteko aukera izan dute ikasleek. Ordu eta erdi inguruko saioan, zabortegiari buruzko maketa bat aztertu dute eta oinezko ibilbidea egin. Ondoren, gelan ikasle bakoitzak bisitan

ikusitakoari buruzko galdetegi bat bete du. Jasotako erantzunak talde handian aztertu dira.

Abarketariari bisitaldia:

Irteera honetan Azkoitiko Julian Iruretagoienaren eskutik, abarketak egitearen prozesua ezagutzeko parada izan dute.

LHko 3. zikloa

Ekintza:

Kontsumo iraunkorraren gela:

Kontsumo gelaren erakusketak erosketa simulazio bat proposatu du ariketa moduan. Ariketa honetan iraunkortasun irizpideak hartu dira kontuan.

Lan-dinamika honako hau izan da: aipatutako hezkuntza-maila bakoitzerako eguneroko egoera batzuk planteatu dira. Egoera hauei aurre egiteko beharrezkoa izan da erosketa batzuk egitea. Taldea talde txikitan banatu da eta bakoitzak orri batean idatzi ditu erosi beharreko produktuak. Ondoren, produktuak bilatu eta aukeratu egin ditu. Produktu guztiak lortu eta gero, beraien ingurumen-kostua kalkulatu dute. Bukatzeko, talde txikiek talde handian azaldu dituzte beren emaitzak eta hezitzailearen laguntzarekin produktu bakoitza aztertu eta aukera iraunkorrena ezagutu dute.

Irteerak:

Legazpiko Sailkapen planta

Bisitaldian, etxeko ontzi arinak material desberdinetan sailkatu ondoren, dagozkion birziklapen plantara eramaten direla ikusteko aukera izan dute. Baita zaborra nola bota behar den, zer ez den bota behar edukiontzi horira, eta e.a. azaldu diete. Bisitaldirako hezitzaile zerbitzua eta lan fitxak planteatu dira.

Emaus fundazioa

Ikasleak taldetan banatu ondoren (gehienez 25 lagun) aurkezpena egin diete, hau da, beraien lan egiteko modua azaldu (badutela funtzio soziala, kaleko jendeari laguntza psikologikoa ematen diotela, lanean txertatzeko aukerak,...), ondoren denda ikusi dute, eta ikasleek arropa sailkatzeko aukera ere izan dute.

Lapatx zabortegira bisitaldia

Lapatx zabortegian zaborrak nola kudeatzen diren jakiteko aukera izan dute ikasleek. Ordu eta erdi inguruko saioan, zaborrei buruzko bideo bat ikusi dute, zabortegeari buruzko maketa bat aztertu eta oinezko ibilbidea egin. Ondoren, gelan ikasle bakoitzak bisitan ikusitakoari buruzko galdetegi bat bete du. Jasotako erantzunak talde handian aztertu dira.

DBHko1. eta 2. zikloak**Ekintzak:*****Kontsumo Iraunkorraren gela***

Kontsumo modu eta ohiturek eragina dute ingurumenean eta gaur egungo gizarteko ohiturek gehiago, izan ere, gehiegi eta burugabe kontsumitzera bultsatzen gaituzte. Kontsumo gela honek kontsumoak dakartzan ondorioen inguruan sentibilizatu nahi du eta erosketak egitean hausnarketa eta jarrera kritikoak bultzatu. Erosketekin lotura izanik ingurumenari eragiten dioten hainbat arlo landu dira modu praktikoan.

Ekintza honen helburua kontsumo iraunkorraren inguruan hausnarketa bat egitea da. Ekintza erosketaren baten simuklazioa izan da. Bertan landu dira hainbat gai: fruta eta barazkiak, brikolajea, elektragailuak, garbiketa produktuak, e.a. Taldeetan banaturik talde guztientzat berdinak izan diren egoera batzuk banatu zaizkie. Erosketak

espontanea izan behar du. Produktu guztiak lortu eta gero, beraien ingurumen-kostua kalkulatu dute. Bukatzeko, talde txikiek talde handian azaldu dituzte beren emaitzak eta hezitzailearen laguntzarekin produktu bakoitza aztertu eta aukera iraunkorrena ezagutu dute.

Irteerak:

Emaus fundazioa:

Ikasleak taldetan banatu ondoren (gehienez 25 lagun) aurkezpena egin diete, hau da, beraien lan egiteko modua azaldu (badutela funtzio soziala, kaleko jendeari laguntza psikologikoa ematen diotela, lanean txertatzeko aukerak,...), ondoren denda ikusi dute, eta ikasleek arropa sailkatzeko aukera ere izan dute.

Urnietako sailkapen planta:

Bisitaldian, etxeko ontzi arinak material desberdinetan sailkatu ondoren, dagozkion birziklapen plantara eramaten direla ikusteko aukera izan dute. Baita zaborra nola bota behar den, zer ez den bota behar edukiontzi horira, eta e.a. azaldu diete. Bisitaldirako hezitzaile zerbitzua eta lan fitxak planteatu dira.

Lapatx zabortegira bisitaldia:

Lapatx zabortegian zaborrak nola kudeatzen diren jakiteko aukera izan dute ikasleek. Ordu eta erdi inguruko saioan, zaborrei buruzko bideo bat ikusi dute, zabortegiari buruzko maketa bat aztertu eta oinezko ibilbidea egin. Ondoren, gelan ikasle bakoitzak bisitan ikusitakoari buruzko galdetegi bat bete du. Jasotako erantzunak talde handian aztertu dira.

PARTAIDETZA

Aukeratu den metodologian **ikasleen parte hartzeari lehentasuna** eman zaio. Eskaini diren tresnak, aurretik ikastetxean programaturiko ekintzak, buruturiko azterketak, lortutako emaitzak eta hobekuntza proposamenak kaleratzea erraztu dutelakoan gaude. Tresna hauek ere, ikastetxean egindako lana kaleratzeko euskarri baliagarriak izan dira.

Komunikazio prozesurako bultzatutako tresnak:

- **Udal Foroa:** herriko arazoetan inplikatur, hobekuntza proposamenak aldarrikatzeko
- **Buletina:** gurasoei zein herritarrei informazioa banatzeko

Azkoitiko eta Azpeitiko Eskolako Agenda 21en parte hartu duten **ikastetxeen arteko koordinazioa** mantentzea ere oso garrantzitsua izan da eta prozesu osoan zehar beraien arteko **adostasuna** izatea bultzatzen saiatu gara. Lan honetan Ingurugiro Etxea Museoko hezitzaileak eta Artelatz Ingurugiro Zerbitzuak-eko hezitzaileek lan bateratua egin dute.

UDAL-FOROA

Helburuak:

- Ikasleak, komunitate bateko partaide sentiaraztea eta tokiko administrazioarekin harremanak bultzatzea, Tokiko Agenda 21ean aktiboki parte hartuz.
- Ikasleek “Kontsumoa murriztuz hondakin solidoak gutxitu” gai nagusitzat hartuta, herriko ingurumen eta giza-diagnostikoak burutzea,

hobekuntza-proposamenak egiten ohitzea eta udaletxean hauek aldarrikatzea.

- Talde-lana eta elkarlana bultzatzea.

Prozedura:

Bilera baten bidez, ikastetxeei foroa burutzeko jarraitu beharreko prozedura eta informazio guztia eman zaie eta foro honi begira, ikastetxe bakoitzean antzemandako arazoan azterketa antolatu. Herriko ikastetxeen arteko koordinazioa bermatu da bileren bidez.

Hurrengo pausua ikastetxe bakoitzak fororako ikasle-ordezkaritza izendatzea, eta parte hartzeko modua azaltzea eta aldarrikapenak lantzea izan da. Eta azkenik, Udalean ikasleek utzi beharreko txosten idatzia prestatu da.

Prozesu honen funtzesko xedea, Udalak Foroan luzatutako aldarrikapenei aurre egitea eta erantzutea da, bai gauzatuko direnak eta bai egingo ez direnen zergatiak azalduz .

Edukia:

Bi foro gauzatu dira: bat, eskolartekoa Ingurugiro Etxean 2007ko martxoaren 20an, eta bestea, Udalbatzaren aurrean, martxoaren 28an.

Adostutakoak:

NORBERAK BETETZEKO KONPROMISOAK

- 1- Kalea eta ikastetxea, denonak direlako, txukun mantenduko ditugu.
- 2- Txikleak lurrera bota beharrean, papertxoan bildu eta zakarrontzira botako ditugu.
- 3- Behar duguna bakarrik erosten saiatuko gara.
- 4- Eskolako materiala ondo zainduko dugu, gutxiago erosteko, eta ez dugu alferrik gastatuko.

- 5- Bilgarri gutxiena duen produktua erosiko dugu
- 6- Hondakinak berrerabili eta birziklatuko ditugu.
- 7- Ahal bada, pila gabeko tresnak erabiliko ditugu eta piladunak direnean, berriz, kargatzekoak.
- 8- Hamaiketako "tuperretan" edo oihalezko poltsatan ekartzen saiatuko gara.
- 9- Oihalezko mukizapiak gehiagotan erabiltzea pentsatu dugu.
- 10- Zabor banaketa egokia egingo dugu, ontzien koloreak errespetatuz.
- 11- Plastikozko poltsak berrerabiliko ditugu.
- 12- Papera behar baino gehiago ez dugu erabiliko.
- 13- Pote txikiak erosi beharrea handiak erosiko ditugu.
- 14- Gauzak berrerabiliko ditugu.
- 15- Liburu berriak erosi beharrea, bigarren eskukoak eskuratu edo trukaketa egingo dugu.

Ikasleek herri mailan ikusi dituzten beharrei dagozkien proposamenak luzatu dizkiote Udalari ere. Udalbatzan aurkeztu dituzten **HERRI MAILAKO PROPOSAMENAK** honako hauek izan dira:

- 1- Saskibaloiko tabernaren ondoan dauden edukiontziak sarriagotan hustu eta kontrolatzea. Askotan ontzietatik kanpo hondakin asko egoten da (arrautz-azalak bere kartoietan, kaxak...) eta umeez jolasean, zabaldu eta inguruak zikintzen dituzte.
- 2- Bigarren eskuko azokak indartzea erabiltzen ez diren gauzei irteera emateko.
- 3- Hiru zatiko ontziak etxeetara banatzea.
- 4- Edukiontziak umeen neurriera egokitzea.
- 5- Sailkatzeko ontzi txiki gehiago ipintzea (goxoki dendetan, parkeetan, BM denda aurrean...) eta oro har herri guztian.
- 6- Ekoizleei adieraztea neurri handiko ontziak erosteak zaborra gutxitzen duela.

- 7- Bertako jakiak eta produktoak kontsumitzeko azoka bereziak bultzatzea. Bestalde, azoka eguna aldatuz gero, agian jende gehiago joango litzateke: izan ere, gero eta gehiagok egiten du lan, eta ezin dira azokara joan. Alda ote liteke, adibidez asteburueta?
- 8- Lapatxera doazen zaborrak kontrolatzea.
- 9- Azpeitiko edukiontziak sarriagotan garbitzea.
- 10-Poltsa berrerabilgarriak banatzea.
- 11-Zaborrak gutxitzeko kanpainak egitea: udazkenean Kaito Telebistan bota zuten bideoa tarteka eta gehiagotan ipintzea. Lapatxera bisitaldi irekiak antolatzea jendea sentsibilizatzeko.
- 12- Zaborren kudeaketaz arduratuko den talde bat eratzea.
- 13-Maxi-Eroskira autobusak jartzea, horrela beharrezkoak ez diren gauza gutxiago erosiko dira eta zabor gutxiago sortuko.
- 14-Edukiontzietara bota ezin diren gauzak (ordenagailuak, telebistak...) botatzeko erreztasunak jartzea.
- 15-Zabor organikoekin konposta egiteko ohiturak bultzatzea eta saritzea.
- 16-Olio bilketa era erosoagoan egitea, hau da, bilketa egiteko egun eta toki gehiago jartzea eta zerbitzu hori doan izatea denontzat (elkarteetan, tabernetan).
- 17-Herritarrei informazioa zabaltzea, hondakinak nola eta zein edukiontzitara bota behar dituzten jakiteko.
- 18-Herritarrei "Gutxiago kontsumitu, berrerabili eta birziklatzearen" garrantziari buruzko informazioa ematea. (Informazio hau behin eta berriro zabaltzea).
- 19-Zaborra sailkatzeko edukiontzi gehiago jartzea, bai baserri inguruetan (Oñatz eta Elosiaga auzoetan), bai kaleetan (Foru Ibilbidean adibidez, ontzi grisak bi daude eta birziklatzeko bat ere ez, Joxe Antonio Agirre plazan edukiontzi berdea falta da). Eta estetikoki eta garbitasun aldetik erosoagoak direnez, lurrazpiko edukiontzi gehiago jartzea, bai eta, arropa biltzeko edukiontzi gehiago ere.
- 20-Udaletxeak ikastetxeei eta enpresei laguntza eskaintzea paper birziklatua erabil dezaten. Hasteko, egokiena izango litzateke

udaletxeak berak lehen urratsa ematea, eta etxeetara bidaltzen duten informazioa (oharrak, festetako egutegia eta abar.) paper birziklatuan izatea.

21-Herria garbitzeko dauden makinak husterakoan hondakinak ibaira ez botatzea, San Juandegi auzoko igerileku atzean gertatzen den bezala, adibidez.

BULETINA

Helburuak:

- Gurasoak, ikasleek egindako lanaren xehetasunak ezagutzea.
- Ikastalde bakoitzak, beste ikastetxeetakoek egindakoaren berri izatea.
- Idatziak eta argazkiak erabiliz euskarri erakargarri bat sortzea.
- Herri mailan ikasturtean Eskolako Agenda 21aren barnean landu den proiektuaren berri ematea.

Edukia:

Buletinari aldizkari itxura eman zaio eta 8 orrialdetan zehar hizkuntz bakarrean, lau ikastetxeetan aurrera jarraitu den prozesuari buruzko informazio guztia azaldu da. Bertan, Azpeitiko Eskolako Agenda 21aren aurkezpena (helburuak, partaideak...), Udal foroa eta ikastetxe bakoitzak burututako ekintza plana adierazten da, prozesuan zehar ateratako argazkiak eta ikasleek sortutako materialen irudiak informazioaren lagungarri izanik, (Ikus Eranskinak).

Prozedura:

Buletina egitearen ardura ARTELATZ, enpresak eraman du aurrera, beti ere Udal ordezkarien lankidetzaz.

Ikastetxe bakoitzean, Eskolako Agenda 21eko arduradunarekin bilera batean, beraien ekintza zehatzen informazioa jaso dugu. Ekintza hauen tenporalizazioa ezagutuz, jardueren arabera, argazki desberdinak atera dira.

Hurrengo urratsa, lortutako informazio eta material guztiarekin buletinaren behin behineko aurkibidea egituratzea izan da, buletinaren lehen bozetoa diseinatuz. Bertan ikasleen parte hartzea ahalik eta handiena gertatzearen apustua egitea beharrezkoa da (adibidez, Udal Foroaren berri emateko atalean).

Lehen bozetoa ikastetxeetako partaideen esku utzi ondoren, beste bilera orokor batean moldapenak eta ekarpenak jaso dira azken zuzenketak egin eta buletina inprentara bidaltzeko.

Buletinak Herri bakoitzeko postontzi guztietan uzteko erabakia hartu da.

BESTE EKINTZAK

GURASOEI ZUZENDUTAKO HITZALDIAK

Aurtengo ikasturterako gurasoak Eskolako Agenda 21eko prozesuan inplikatzeko beraiei bereziki zuzendutako hitzaldiak antolatzea aurreikusita zegoen. Ikasturtea bukatu eta gero, esan beharra dago helburuak erabat ez direla bete. Ikastetxeen nahiaren arabera burutu da eta bakarrik Iraurgi Ikastetxeko gurasoei zuzendu zaie hitzaldi bat, bertako Gurasoen Elkarteak hala eskaturik.

Hitzaldia Martxoaren 1ean izan zen eta hizlaria Udaletxeko Ingurumen Teknikaria izan zen. Jorrraturiko gaia, "Hondakinen prebentzioa: Etxeetan har ditzakegun neurriak".

Urola Ikastolakoek antzeko zerbait egiteko asmoa ere azaldu zuten baina, arrazoi desberdinak medio, azkenean ez zen gauzatu.

INGURUMENAREN ASTEA

Ikastetxeei zuzendutako tallerrak

Ingurumenaren Astea, urtero egin ohi denez, ikastetxeei zuzendutako tallerrak egin dira. Tallerrak ikastetxeetan bertan eta talde bakoitzaren gelan burutu ziren hain zuzen.

Gaia, hondakinen sorreraren prebentzioa izan da eta Lehen Hezkuntzako Zikloei eskaini zaizkie.

Lehen Ziklokoei: Birziklatzeko txokoak (Artelatz enpresaren eskutik)

Bigarren Ziklokoei: Antzarraren Jolasa (Artelatz enpresaren eskutik)

Hirugarren Ziklokoei: Hondakinen Prebentzioa: Doraren Bidaia (Emaus Fundaziokoekin batera)

Eranskinetan, Ekimen hauen inguruko xehetasun gehiago azaltzen da.

Bidezko merkataritza eta 2. Eskuko azokan parte-hartzea

Bigarren urtez, Udaletxetik, Ingurumen Astearen abarruan Bidezko merkataritza eta 2. Eskuko Azoka antolatu da. Udal ordezkarien helburua, ikastetxeen partaidetza lortzea zen.

Lehen urtean saikera egin ostean lortu ez bazen ere, aurtengoan ikastetxeen partaidetzak arrakasta handia izan du. Ikastetxe guztiek hartu zuten parte eta beraien balorazioa oso positiboa izan da.

Antolaketa lanetan Artelatz enpresaren laguntza ezinbestekoa izan da eta baita Azpeitiko Udaltzaingo eta Obra eta Zerbitzuetako Sailarena ere.

Eranskinetan, ekimen honi buruzko balorazio txostena ikus daiteke.

“Egizu keinu naturala” sentsibilizazio ekimena

Aste Berdeko Ekimenen artean, Azoka egun eta leku berean birziklapenari buruzko sentsibilizazio ekimen berezia antolatu zen. Ekimen honetan parte hartu zutenei poltsa berrerabilgarriak banatu zitzaizkien.

Eranskinetan, ekimen hau eta balorazioa xehetasun gehiagoz azalduta dago, Azokaren balorazioarekin batera.

ERANSKINAK:

1. Lan fitxak
2. Sasetako Plantara eginiko bisitaldian landutako tallerren deskribapen eta balorapena
3. Ingurumen Astearen burututako ekintzak, deskribapena eta Balorazioa
4. Eskolako Agenda 21aren Buletina
5. Argazkiak